

IZAN ZEU – GONTZAL MENDIBIL

(“Zu zeu” albuma 1990)

Izan zinen, izango dira.

Hala da eta bizi beharrez,

jazo daitekeenean ere

izan zaitez zeu etengabe.

Joan zirenak joanak dira,

datozenak gaur ikusteke.

Ez da zorionik debalde,

etsipenari egiozu ihes.

Jakinaren gainean gaude,

ez garela beti ere libre.

Une honetan ezer ez galde,

aldatuko denaren ustez.

Zeu zeu izan zaitez.

Izan zaitez beldurrik gabe,

hautsi mugak,

nahigabeak erre.

Zure sua behar da hemen,

ilunak egin dezan alde.

Izan zaitez izateko prest,

bizi zaitez zeure indarrez.

Zeure senean beti iraunez,

izan zaitez argi ilenti lez.

Bare bare joanean,

bidez bide ekinean.

lortu arte behar duzun

hori.

Zeu zeu izan zaitez.

LAN-PROPOSAMENA:

1- ABESTIA ENTZUN

2- POST-IT BATEAN BAKOITZARENTZAT DEIGARRI DIREN HITZAK EDO ESALDIAK IDATZI.

3- BATERATZE-LANA: KIDE BAKOITZAK ZER ETA ZERGATIK IDATZI DUEN ADIERAZI.

4- ONDORIOAK.